



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO KIDEGOAK ETA ESKALAK ARAUTZEN DITUEN LEGE-PROIEKTUA ONARTZEKO AZKEN MEMORIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko kidegoak eta eskalak arautzen dituen lege-aurreproiektua 2017ko uztailaren 10ean hasi zen izapidetzen.

Laburbilduz, hauek dira lege-aurreproiektua egiteko arrazoiak: otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, onartu zenetik igarotako denbora; taldeak eta azpitaldeak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ezarritako sailkapen berrira egokitzeko beharra; sortutako titulazio berriak eta lanpostu jakin batzuen lanbide-profilak eguneratzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren mahai sektorialak 2019ko apirilaren 15ean, maiatzaren 23an, ekainaren 13an, 20an eta 25ean eta urriaren 24an egindako bileretan, aipatutako lege-aurreproiektua gai-zerrendan sartu zen. Halaber, nahitaezko txostenak eta irizpenak bildu ziren:

- 1) Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak, 2019ko uztailaren 30eko txostenean, ondorioztatzen du aurreproiektuak ez duela inolako ondoriorik euskararen erabileran.
- 2) Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak ez zuen oharririk egin 2019ko uztailaren 31ko txostenean.
- 3) Emakundek, 2019ko urriaren 3ko txostenean, berdintasun-politikak sustatzea azpimarratu zuen.
- 4) Funtzio Publikoko Zuzendaritzak, 2019ko azaroaren 6ko txostenean, kontuan hartu ziren zenbait ohar egin zituen.
- 5) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak, 2019ko abenduaren 3ko txostenean, zenbait zuzenketa proposatu zituen, aurreproiektuan sartu zirenak.
- 6) Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak 2019ko azaroaren 12an eman zuen txostena, eta lege-aurreproiektuan Euskal Enplegu Publikoaren lege-proiektuaren parte ziren aldi baterako enplegua finkatzeko xedapenak sartzea proposatu zuen.
- 7) 2019ko abenduaren 3ko txostenean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiaztatu zuen lege-aurreproiektuak ez duela eragin zuzenik eta berehalakorik Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontuetan, gastuaren alderdiari dagokionez.

8) EABAJUK, 2019ko otsailaren 5eko irizpenean, hainbat ohar egin zituen, eta, funtsean, lege-aurreproiektuan jaso ziren.

Era berean, Lege Aurreproiektua jendaurrean jarri zen. Aurreko izapidearen ondorioz, partikularren, sindikatuen eta elkargo profesionalen hainbat alegazio jaso ziren. Era berean, Administrazio honetako sailek eta erakunde autonomoek aurreproiektuari buruzko gogoetak egin zituzten.

Azkenik, Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 11ko bilkuran onartu zuen lege-aurreproiektua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoak eta eskalak arautzen dituen lege-proiektua ez zen Legebiltzarrerara bidali, hauteskunde-deialdiaren ondorioz deseginda zegoelako.

Lege-proiektuak ez du aldaketarik izan onartu zenetik.

Lege-proiektuak honako egitura hau du: zioen azalpena, bi kapitulu, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta eranskin bat.

I. kapituluak lege-proiektuaren xedea, eremu subjektiboa eta xedapen orokorrak jasotzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidego, eskala eta espezialitateei dagokienez.

II. kapituluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoak eta eskalak eta haien oinarrizko eginkizunak arautzen ditu, eta EPOEren 76. artikuluan aurreikusitako titulazioak ezartzen ditu. Kidego berezietako eskaletan sartzeko tituluak biltzen dituzten azterketa-eremuak zerrendetan zehaztuko dira.

Halaber, kapitulu honetan ezartzen dira kidego eta eskala berrietan integratzeko betekizunak eta ondorioak, bai eta prozedura ere.

Lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan, enplegua finkatzeko prozesuak sartzen dira, eta horien aplikazio-eremua zabaldu egiten da euskal administrazio publikoentzat.

Hirugarren xedapen gehigarriak lanpostu-zerrendak lege honetan xedatutakora egokitzeko agindua jasotzen du.

Laugarren xedapen gehigarriak agintzen du indarrean dauden aldi baterako lan-poltsak integratzea. Xedapen iragankor bakarrak eutsi egiten dio lege hau indarrean jartzean baliozkoak diren unibertsitate-titulu ofizialen indarraldiari.

Xedapen indargabetzaile bakarrak ezabatu egiten du Kidegoak eta Eskalak Antolatzeko Legea.

Azken xedapenetatik lehenak legea erregelamendu bidez garatzeko baimena ematen du, eta bigarrenak, berriz, argitaratu eta sei hilabetera arte aldatzen du indarrean jartzea.

Legeak eranskin bat du, otsailaren 25eko 1/2004 Legean sortutako kidegoen, aukeren eta eskalen eta lege honetan sortutako kidego eta eskalen arteko elkarrekikotasuna ezartzen duena.

Lege-proiektuaren testua Gobernu Kontseiluak 2020ko otsailaren 11n onartutakoaren berdina denez, eta bildutako txostenek eta irizpenek baliozkotasunari eusten diotenez, Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoak eta eskalak arautzen dituen lege-proiektua baliozkotzeko eskatzen da, hasieratik berriz izapidetu beharrik gabe. Izapideen eta epeen ekonomiari eta hura egiteko arrazoiei eusteari dagokienez, honekin batera doan lege-proiektua onartzea komeni da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 24a.

Sin.: Juan M^a Barasorda Goicoechea

Funtzio publikoko zuzendaria